

gramatika-eranskina

<i>e u s k a r a</i>
<i>g a z t e l a n i a</i>
<i>c a s t e l l a n o</i>
<i>v a s c o</i>

apéndice gramatical

hiztegia

gramatika-eranskina

Deklinabidea	IV-V	
Erakusleak	VI	
Pertsona-izenordain arruntak	VII	
Bera - Eurak	VII	
Bat - batzuk	VIII	
Hiru - Lau	VIII	
Hitz elkartuen idazkera	VIII	
Aditz laguntzailea	IX	
Aditz trinkoen paradigmak	X-XV	
Hitanoa	XVI-XX	
Zenbakien idazkera	XXI	
Puntuazio-zeinuak	XXII	
Atzerriko toponimoen jentilizioak sortzeko arau orokorrak	XXIII	
Zer ordu da?/Zer ordutan...? ...XXIV ...¿Qué hora es?/¿A qué hora...?		
Data	XXIV	La fecha
Kalkulu-eragiketak	XXIV	Operaciones de cálculo
XXV	Artículos	
XXV	Adjetivos/Pronombres demostrativos	
XXV	Adjetivos/Pronombres posesivos	
XXV	Adjetivos/Pronombres indefinidos	
XXVI	Adjetivos/Pronombres numerales	
XXVII	Pronombres personales	
XXVII	Adjetivos/Pronombres interrogativos y exclamativos	
XXVII	Pronombres relativos	
XXVIII-XXX	Verbos regulares	
XXXI-XXXII	Verbos auxiliares	
XXXIII-XXXVII	Verbos irregulares	
XXXVIII	Reglas de acentuación	
XXXIX	Reglas de puntuación	

D E K L I N

BOKALEZ AMAITZEN DIREN HITZAK

	IZEN ARRUNTAK (BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK)			IZEN BEREZIAK	
	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA	LEKU-IZENA	PERTSONA-IZENA
Absolutua	mendi	mendiA	mendiAK	Baiona	Eduerne
Partitiboa	mendirIK	—	—	BaionarIK	EduernerIK
Ergatiboa	mendiK	mendiAK	mendiEK	BaionaK	EduerneK
Datiboa	mendirI	mendiARI	mendiEI	BaionarI	EduernerI
Genitiboa	mendirEN	mendiAREN	mendiEN	BaionarEN	EduernerEN
Leku-genitiboa (bizigabeak) (bizidunak)	mendiTAKO katurEN BAITAKO	mendiKO katuAREN BAITAKO	mendiETAKO katuEN BAITAKO	BaionaKO —	— Eduerne(rEN) BAITAKO
Instrumentala	mendiZ	mendiAZ	mendiEZ	BaionaZ	EduerneZ
Soziatiboa	mendirEKIN	mendiAREKIN	mendiEKIN	BaionarEKIN	EduernerEKIN
Motibatiboa	mendi(rEN)GATIK	mendiA(REN)GATIK	mendi ^{ENGATIK} AKATIK	Baiona(rEN)GATIK	Eduerne(rEN)GATIK
Destinatiboa	mendi ^r ENTZAT rENDAKO	mendi ^r ARENTZAT ARENDAKO	mendi ^{ENTZAT} ENDAKO	Baiona ^r ENTZAT rENDAKO	Eduerne ^r ENTZAT rENDAKO
Prolatiboa	mendi ^{TZAT} TAKO	—	—	Baiona ^{TZAT} TAKO	Eduerne ^{TZAT} TAKO
BIZIGABEAK SOILIK					
Inesiboa	mendiTAN	mendiAN	mendiETAN	BaionaN	—
Ablatiboa	mendi ^{TATIK} TARIK	mendiTIK	mendi ^{ETATIK} ETARIK	BaionaTIK	—
Adlatibo soila	mendiTARA(T)	mendiIRA(T)	mendiETARA(T)	BaionaRA(T)	—
Muga-adlatiboa	mendiTARAINO	mendiRAINO	mendiETARAINO	BaionaRAINO	—
Hurbiltze-adlatiboa	mendiTARANTZ	mendiRANTZ	mendiETARANTZ	BaionaRANTZ	—
Adl.aren gainean eraikia	mendiTARAKO	mendiRAKO	mendiETARAKO	BaionaRAKO	—
BIZIDUNAK SOILIK					
Inesiboa	katu(rEN)GAN katurEN BAITAN	katuA(REN)GAN katuAREN BAITAN	katu ^{ENGAN} AKAN katuEN BAITAN	— —	Eduerne(rEN)GAN Eduerne(rEN) BAITAN
Ablatiboa	katu(rEN)GAN(D)IK katurEN BAITARIK	katuA(REN)GAN(D)IK katuAREN BAITARIK	katu ^{ENGAN(D)IK} AKANDIK katuEN BAITARIK	— —	Eduerne(rEN)GAN(D)IK Eduerne(rEN) BAITARIK
Adlatibo soila	katu(rEN)GANA(T) katurEN BAITARA(T)	katuA(REN)GANA(T) katuAREN BAITARA(T)	katu ^{ENGANA(T)} AKANA katuEN BAITARA(T)	— —	Eduerne(rEN)GANA(T) Eduerne(rEN) BAITARA(T)
Muga-adlatiboa	katu(rEN)GANAINO	katuA(REN)GANAINO	katu ^{ENGANAINO} AKANAINO	—	Eduerne(rEN)GANAINO
Hurbiltze-adlatiboa	katu(rEN)GANANTZ	katuA(REN)GANANTZ	katu ^{ENGANANTZ} AKANANTZ	—	Eduerne(rEN)GANANTZ
Adl.aren gainean eraikia	katu(rEN)GANAKO	katuA(REN)GANAKO	katuENGANAKO	—	Eduerne(rEN)GANAKO
<p>"a" bokalez bukatutako hitzetan gertatzen diren aldaketak: a + e = e alaba + ek -> alabek; a + a = a alaba + ak -> alabak; a + o = o alaba + ok -> alabok</p> <p>"a" artikulua bukatutako leku-izenek (Azkoitia, Azpeitia, Basaburua, Bizkaia, Britainia Handia, Deustua, Ermua, Iruñea, etab.) partitiboan (Azkoitirik), leku-genitiboan (Azkoitiko), prolatiboan (Azkoitizat/Azkoititako), adlatiboetan (Azkoitira, Azkoitirantz, Azkoitiraino) eta ablatiboan (Azkoitik) azken "a" galdu egiten dute, izen arrunten deklinabidea baitute eredu: mendian/Azkoitian, baina mendiko/Azkoitiko (ez *Azkoitiako).</p>					

A B I D E A

KONTSONANTEZ AMAITZEN DIREN HITZAK					
	IZEN ARRUNTAK (BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK)			IZEN BEREZIAK	
	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA	LEKU-IZENA	PERTSONA-IZENA
Absolutua	haran	haranA	haranAK	Eibar	Miren
Partitiboa	haranIK	—	—	Eibarrik	MirenIK
Ergatiboa	haraneK	haranAK	haranEK	EibarreK	MireneK
Datiboa	haranI	haranARI	haranEI	EibarrI	MirenI
Genitiboa	haranEN	haranAREN	haranEN	EibarrEN	MirenEN
Leku-genitiboa (bizigabeak) (bizidunak)	haraneTAKO gizonEN BAITAKO	haraneKO gizonAREN BAITAKO	haranETAKO gizonEN BAITAKO	Eibar(rE)KO —	— Miren(EN) BAITAKO
Instrumentala	haraneZ	haranAZ	haraneZ	EibarreZ	MireneZ
Soziatiboa	haranEKIN	haranAREKIN	haranEKIN	EibarrEKIN	MirenEKIN
Motibatiboa	haran ^(E) GATIK ENGATIK	haranA(REN)GATIK	haran ^{ENGATIK} AKATIK	Eibar(rE(N))GATIK	Miren(EN)GATIK
Destinatiboa	haran ^{ENTZAT} ENDA KO	haran ^{ARENZAT} ARENDA KO	haran ^{ENTZAT} ENDA KO	Eibar ^{ENTZAT} ENDA KO	Miren ^{ENTZAT} ENDA KO
Prolatiboa	haran ^{TZAT} DA KO	—	—	Eibar ^{TZAT} TA KO	Miren ^{TZAT} TA KO
BIZIGABEAK SOILIK					
Inesiboa	haraneTAN	haraneAN	haranETAN	EibarreN	—
Ablatiboa	haran ^e TATIK ^e TARIK	haraneTIK	haran ^{ETATIK} ETARIK	Eibar(rE)TIK	—
Adlatibo soila	haraneTARA(T)	haraneRA(T)	haranETARA(T)	Eibar(rE)RA(T)	—
Muga-adlatiboa	haraneTARAINO	haraneRAINO	haranETARAINO	Eibar(rE)RAINO	—
Hurbiltze-adlatiboa	haraneTARANTZ	haraneRANTZ	haranETARANTZ	Eibar(rE)RANTZ	—
Adl.aren gainean eraikia	haraneTARAKO	haraneRAKO	haranETARAKO	EibarrERAKO	—
BIZIDUNAK SOILIK					
Inesiboa	gizonENGAN gizonEN BAITAN	gizonA(REN)GAN gizonAREN BAITAN	gizon ^{ENGAN} AKAN gizonEN BAITAN	—	Miren(EN)GAN Miren(EN) BAITAN
Ablatiboa	gizonENGAN(D)IK gizonEN BAITARIK	gizonA(REN)GAN(D)IK gizonAREN BAITARIK	gizon ^{ENGAN(D)IK} AKAN(D)IK gizonEN BAITARIK	—	Miren(EN)GAN(D)IK Miren(EN) BAITARIK
Adlatibo soila	gizonENGANA(T) gizonEN BAITARA(T)	gizonA(REN)GANA(T) gizonAREN BAITARA(T)	gizon ^{ENGANA(T)} AKANA gizonEN BAITARA(T)	—	Miren(EN)GANA(T) Miren(EN) BAITARA(T)
Muga-adlatiboa	gizonENGAINO	gizonA(REN)GAINO	gizon ^{ENGAINO} AKANAINO	—	Miren(EN)GAINO
Hurbiltze-adlatiboa	gizonENGANANTZ	gizonA(REN)GANANTZ	gizon ^{ENGANANTZ} AKANANTZ	—	Miren(EN)GANANTZ
Adl.aren gainean eraikia	gizonENGAKO	gizonA(REN)GAKO	gizonENGAKO	—	Miren(EN)GAKO

Mugatu pluralean plural **hurbila** izeneko erabiltzen da, batez ere bizkaieraz, hurbiltasuna adierazteko; bizigabe nahiz bizidunekin erabiltzen da. Deklinabide hurbilean -a-ren ordez -o- erabiltzen da mugatzaile gisa (**mendiok/haranok, mendiok/haranok, mendioi/harani, mendion/haranon, mendiotako/haranotako, ...**).

E R A K U S L E A K

ERAKUSLE ARRUNTAK	HAU		HORI		HURA	
	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutua	HAU	HAUEK	HORI	HORIEK	HURA	HAIEK
Ergatiboa	HONEK	HAUEK	HORREK	HORIEK	HARK	HAIEK
Datiboa	HONI	HAUEI	HORRI	HORIEI	HARI	HAIEI
Genitiboa	HONEN	HAUEN	HORREN	HORIEEN	HAREN	HAIEEN
Soziatiboa	HONEKIN	HAUEKIN	HORREKIN	HORIEKIN	HAREKIN	HAIEKIN
Destinatiboa	HONENTZAT	HAUENTZAT	HORRENTZAT	HORIENTZAT	HARENTZAT	HAIENTZAT
	HONENDAKO	HAUENDAKO	HORRENDAKO	HORIENDAKO	HARENDAKO	HAIENDAKO
Motibatiboa	HONE(N)GATIK	HAUE(N)GATIK	HORRE(N)GATIK	HORIE(N)GATIK	HARE(N)GATIK	HAIE(N)GATIK
					HARGATIK	
Instrumentala	HONETAZ	HAUETAZ	HORRETAZ	HORIENTAZ	HARTAZ	HAIENTAZ
	HONEZ	HAUEZ	HORREZ	HORIEZ	HAREZ	HAIEZ
	HONEZAZ	HAUEZAZ	HORREZAZ	HORIEZAZ		HAIEZAZ
Inesiboa	HONETAN	HAUETAN	HORRETAN	HORIENTAN	HARTAN	HAJETAN
Leku-genitiboa	HONETAKO	HAUETAKO	HORRETAKO	HORIENTAKO	HARTAKO	HAJETAKO
Ablatiboa	HONETATIK	HAUETATIK	HORRETATIK	HORIENTATIK	HARTATIK	HAJETATIK
	HONETARIK	HAUETARIK	HORRETARIK	HORIENTARIK	HARTARIK	HAJETARIK
Adlatibo soila	HONETARA(T)	HAUETARA(T)	HORRETARA(T)	HORIENTARA(T)	HARTARA(T)	HAJETARA(T)
Hurbiltze-adlatiboa	HONETARANTZ	HAUETARANTZ	HORRETARANTZ	HORIENTARANTZ	HARTARANTZ	HAJETARANTZ
Muga-adlatiboa	HONETARAINO	HAUETARAINO	HORRETARAINO	HORIENTARAINO	HARTARAINO	HAJETARAINO
Adl.aren gainean eraikia	HONETARAKO	HAUETARAKO	HORRETARAKO	HORIENTARAKO	HARTARAKO	HAJETARAKO
BIZIDUNAK						
Inesiboa	HONENGAN	HAUENGAN	HORRENGAN	HORIEGAN	HARENGAN	HAIEGAN
	HONEN BAITAN	HAUEN BAITAN	HORREN BAITAN	HORIEEN BAITAN	HAREN BAITAN	HAIEEN BAITAN
Ablatiboa	HONENGAN(D)IK	HAUENGAN(D)IK	HORRENGAN(D)IK	HORIEGAN(D)IK	HARENGAN(D)IK	HAIEGAN(D)IK
					HAREN BAITATIK	HAIEEN BAITATIK
					HAREN BAITARIK	HAIEEN BAITARIK
Adlatibo soila	HONENGANA(T)	HAUENGANA(T)	HORRENGANA(T)	HORIEGANA(T)	HARENGANA(T)	HAIEGANA(T)
					HAREN BAITARA(T)	HAIEEN BAITARA(T)
Hurbiltze-adlatiboa	HONENGANANTZ	HAUENGANANTZ	HORRENGANANTZ	HORIEGANANTZ	HARENGANANTZ	HAIEGANANTZ
Muga-adlatiboa	HONENGANAINO	HAUENGANAINO	HORRENGANAINO	HORIEGANAINO	HARENGANAINO	HAIEGANAINO
Adl.aren gainean eraikia	HONENGANAKO	HAUENGANAKO	HORRENGANAKO	HORIEGANAKO	HARENGANAKO	HAIEGANAKO

ERAKUSLE INDARTUAK	HAUXE		HORIXE		HURAXE	
	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutua	HAUXE	HAUEXEK	HORIXE	HORIEXEK	HURAXE	HAIEXEK
Ergatiboa	HONEXEK	HAUEXEK	HORREXEK	HORIEXEK	HAREXEK	HAIEXEK
Datiboa	HONIXE	HAUEIXE	HORRIXE	HORIEIXE	HARIXE	HAIEIXE
	HONEXERI	HAUEXEI	HORREXERI	HORIEXEI	HAREXERI	HAIEXEI
Genitiboa	HONE(T)XEN	HAUEXEN	HORRE(T)XEN	HORIEXEN	HARE(T)XEN	HAIEXEN
Soziatiboa	HONE(T)XEKIN	HAUEXEKIN	HORRE(T)XEKIN	HORIEXEKIN	HARE(T)XEKIN	HAIEXEKIN
Destinatiboa	HONE(T)XENTZAT	HAUEXENTZAT	HORRE(T)XENTZAT	HORIEXENTZAT	HARE(T)XENTZAT	HAIEXENTZAT
	HONE(T)XENDAKO	HAUEXENDAKO	HORRE(T)XENDAKO	HORIEXENDAKO	HARE(T)XENDAKO	HAIEXENDAKO
Motibatiboa	HONE(T)XE(N)GATIK	HAUEXE(N)GATIK	HORRE(T)XE(N)GATIK	HORIEXE(N)GATIK	HARE(T)XE(N)GATIK	HAIEXE(N)GATIK
	HONEGATI(K)XE	HAUEGATI(K)XE	HORREGATI(K)XE	HORIEGATI(K)XE	HARGATI(K)XE	HAIEGATI(K)XE
Instrumentala	HONEXETAZ	HAUEXETAZ	HORREXETAZ	HORIEXETAZ	HAREXETAZ	HAIEXETAZ
	HONEXEZAZ	HAUEXEZAZ	HORREXEZAZ	HORIEXEZAZ	HAREXEZAZ	HAIEXEZAZ
	HONE(T)XEZ	HAUEXEZ	HORRE(T)XEZ	HORIEXEZ	HARE(T)XEZ	HAIEXEZ
Inesiboa	HONEXANTXE	HAUEXANTXE	HORREXANTXE	HORIEXANTXE	HAREXANTXE	HAIEXANTXE
	HONEXETAN	HAUEXETAN	HORREXETAN	HORIEXETAN	HAREXETAN	HAIEXETAN
Leku-genitiboa	HONEXAKOXE	HAUEXAKOXE	HORREXAKOXE	HORIEXAKOXE	HAREXAKOXE	HAIEXAKOXE
	HONEXETAKO	HAUEXETAKO	HORREXETAKO	HORIEXETAKO	HAREXETAKO	HAIEXETAKO
	HONEXEN BAITAKO	HAUEXEN BAITAKO	HORREXEN BAITAKO	HORIEXEN BAITAKO	HAREXEN BAITAKO	HAIEXEN BAITAKO
	HAUXE BAITAKO	HAUEXEK BAITAKO	HORIXE BAITAKO	HORIEK BAITAKO	HURAXE BAITAKO	HAIEK BAITAKO
Ablatiboa	HONEXATI(K)XE	HAUEXATI(K)XE	HORREXATI(K)XE	HORIEXATI(K)XE	HAREXATI(K)XE	HAIEXATI(K)XE
	HONEXETATIK	HAUEXETATIK	HORREXETATIK	HORIEXETATIK	HAREXETATIK	HAIEXETATIK
	HONEXETARIK	HAUEXETARIK	HORREXETARIK	HORIEXETARIK	HAREXETARIK	HAIEXETARIK
Adlatibo soila	HONEXARAXE	HAUEXARAXE	HORREXARAXE	HORIEXARAXE	HAREXARAXE	HAIEXARAXE
	HONEXETARA(T)	HAUEXETARA(T)	HORREXETARA(T)	HORIEXETARA(T)	HAREXETARA(T)	HAIEXETARA(T)
Hurbiltze-adlatiboa	HONEXETARANTZ	HAUEXETARANTZ	HORREXETARANTZ	HORIEXETARANTZ	HAREXETARANTZ	HAIEXETARANTZ
Muga-adlatiboa	HONEXETARAINOXE	HAUEXETARAINOXE	HORREXETARAINOXE	HORIEXETARAINOXE	HAREXETARAINOXE	HAIEXETARAINOXE
	HONEXETARAINO	HAUEXETARAINO	HORREXETARAINO	HORIEXETARAINO	HAREXETARAINO	HAIEXETARAINO
Adl.aren gainean eraikia	HONEXETARAKO	HAUEXETARAKO	HORREXETARAKO	HORIEXETARAKO	HAREXETARAKO	HAIEXETARAKO
BIZIDUNAK						
Inesiboa	HONEXE(N)GAN	HAUEXE(N)GAN	HORREXE(N)GAN	HORIEXE(N)GAN	HAREXE(N)GAN	HAIEXE(N)GAN
	HONEGANTXE	HAUEGANTXE	HORREGANTXE	HORIEGANTXE	HAREGANTXE	HAIEGANTXE
	HONEXEN BAITAN	HAUEXEN BAITAN	HORREXEN BAITAN	HORIEXEN BAITAN	HAREXEN BAITAN	HAIEXEN BAITAN
	HAUXE BAITAN	HAUEXEK BAITAN	HORIXE BAITAN	HORIEK BAITAN	HURAXE BAITAN	HAIEK BAITAN
Ablatiboa	HONEXE(N)GAN(D)IK	HAUEXE(N)GAN(D)IK	HORREXE(N)GAN(D)IK	HORIEXE(N)GAN(D)IK	HAREXE(N)GAN(D)IK	HAIEXE(N)GAN(D)IK
	HONEXEN BAITARIK	HAUEXEN BAITARIK	HORREXEN BAITARIK	HORIEXEN BAITARIK	HAREXEN BAITARIK	HAIEXEN BAITARIK
	HAUXE BAITARIK	HAUEXEK BAITARIK	HORIXE BAITARIK	HORIEK BAITARIK	HURAXE BAITARIK	HAIEK BAITARIK
Adlatibo soila	HONEXE(N)GANA	HAUEXE(N)GANA	HORREXE(N)GANA	HORIEXE(N)GANA	HAREXE(N)GANA	HAIEXE(N)GANA
	HONEXEN BAITARA	HAUEXEN BAITARA	HORREXEN BAITARA	HORIEXEN BAITARA	HAREXEN BAITARA	HAIEXEN BAITARA
	HAUXE BAITARA	HAUEXEK BAITARA	HORIXE BAITARA	HORIEK BAITARA	HURAXE BAITARA	HAIEK BAITARA
Hurbiltze-adlatiboa	HONEXE(N)GANANTZ	HAUEXE(N)GANANTZ	HORREXE(N)GANANTZ	HORIEXE(N)GANANTZ	HAREXE(N)GANANTZ	HAIEXE(N)GANANTZ
Muga-adlatiboa	HONEXE(N)GANAINO	HAUEXE(N)GANAINO	HORREXE(N)GANAINO	HORIEXE(N)GANAINO	HAREXE(N)GANAINO	HAIEXE(N)GANAINO
	HONEXEN BAITARAINO	HAUEXEN BAITARAINO	HORREXEN BAITARAINO	HORIEXEN BAITARAINO	HAREXEN BAITARAINO	HAIEXEN BAITARAINO
	HAUXE BAITARAINO	HAUEXEK BAITARAINO	HORIXE BAITARAINO	HORIEK BAITARAINO	HURAXE BAITARAINO	HAIEK BAITARAINO
Adl.aren gainean eraikia	HONEXENGANAKO	HAUEXENGANAKO	HORREXENGANAKO	HORIEXENGANAKO	HAREXENGANAKO	HAIEXENGANAKO

hau eta hori erakusleen eredu berekoak dira **berau** eta **berori** forma indartuak ere; gainera, **berori**, eta pluralean **beroriek**, errespetuzko formak ere badira.

PERTSONA-IZENORDAIN ARRUNTAK

(eta INDARTUAK parentesi artean)

	NI (NEU)	HI (HEU)	GU (GEU)	ZU (ZEU)	ZUEK (ZEUEK)
Absolutua	NI (neu)	HI (heu)	GU (geu)	ZU (zeu)	ZUEK (zeuek)
Ergatiboa	NIK (neuk)	HIK (heuk)	GUK (geuk)	ZUK (zeuk)	ZUEK (zeuek)
Datiboa	NIRI (neuri)	HIRI (heuri)	GURI (geuri)	ZURI (zeuri)	ZUEI (zeuei)
Genitiboa	NIRE/ENE (neure)	HIRE (heure)	GURE (geure)	ZURE (zeure)	ZUEN (zeuen)
Soziatiboa	NIREKIN/ENEKIN (neurekin)	HIREKIN (heurekin)	GUREKIN (geurekin)	ZUREKIN (zeurekin)	ZUEKIN (zeuekin)
Instrumentala	NITAZ (neutaz)	HITAZ (heutaz)	GUTAZ (geutaz)	ZUTAZ (zeutaz)	ZUETAZ (zeuetaz)
Destinatiboa	NIRETZAT/ENETZAT (neuretzat)	HIRETZAT (heuretzat)	GURETZAT (geuretzat)	ZURETZAT (zeuretzat)	ZUENTZAT (zeuentzat)
	NIRETAKO/ENETAKO (neuretako)	HIRETAKO (heuretako)	GURETAKO (geuretako)	ZURETAKO (zeuretako)	ZUENDAKO (zeuendako)
Motibatiboa	NI(RE)GATIK/ENEGATIK (neu(re)gatik)	HI(RE)GATIK (heu(re)gatik)	GU(RE)GATIK (geu(re)gatik)	ZU(RE)GATIK (zeu(re)gatik)	ZUENGATIK (zeuengatik)
Leku-genitiboa	NIRE BAITAKO/ENE BAITAKO (neure baitako)	HIRE BAITAKO (heure baitako)	GU(RE) BAITAKO (geure baitako)	ZU(RE) BAITAKO (zeure baitako)	ZUEN BAITAKO (zeuen baitako)
Inesiboa	NI(RE)GAN/ENEGAN (neugan)	HI(RE)GAN (heuregan)	GU(RE)GAN (geu(re)gan)	ZU(RE)GAN (zeu(re)gan)	ZUENGAN (zeuengan)
	NIRE BAITAN/ENE BAITAN (heure baitan)	HIRE BAITAN (heure baitan)	GURE BAITAN (geure baitan)	ZURE BAITAN (zeure baitan)	ZUEN BAITAN (zeuenganako)
Ablatiboa	NITAN (neugan(d)ik)	HITAN (heuregan(d)ik)	GUTAN (geuregan(d)ik)	ZUTAN (zeuregan(d)ik)	ZUETAN (zeuengan(d)ik)
	NIRE BAITATIK/ENE BAITATIK (heure baitatik)	HIRE BAITATIK (heure baitatik)	GU(RE) BAITATIK (geure baitatik)	ZU(RE) BAITATIK (zeure baitatik)	ZUEN BAITATIK (zeuengan(d)ik)
Adlatibo soila	NIREGANA(T)/ENEGANA(T) (neugana)	HI(RE)GANA(T) (heureganana)	GU(RE)GANA(T) (geureganana)	ZU(RE)GANA(T) (zeureganana)	ZUENGANA(T) (zeuengana)
	NIRE BAITARA(T)/ENE BAITARA(T) (heure baitara(t))	HIRE BAITARA(T) (heure baitara(t))	GU(RE) BAITARA(T) (geure baitara(t))	ZU(RE) BAITARA(T) (zeure baitara(t))	ZUEN BAITARA(T) (zeuenganana)
Hurbiltze-adlatiboa	NI(RE)GANANTZ/ENEGANANTZ (neuganantz)	HI(RE)GANANTZ (heureganantz)	GU(RE)GANANTZ (geureganantz)	ZU(RE)GANANTZ (zeureganantz)	ZUENGANANTZ (zeuenganantz)
Muga-adlatiboa	NIREGANAINO/ENEGANAINO (neuganaino)	HI(RE)GANAINO (heureganaino)	GU(RE)GANAINO (geureganaino)	ZU(RE)GANAINO (zeureganaino)	ZUENGANAINO (zeuenganaino)
Adl.aren gainean eraikia	NIREGANAKO/ENEGANAKO (neureganako)	HI(RE)GANAKO (heureganako)	GU(RE)GANAKO (geureganako)	ZU(RE)GANAKO (zeureganako)	ZUENGANAKO (zeuenganako)

Izenordain indartuetan, parentesi artean emandakoaz gainera, beste bi forma gehiago erabil daitezke pertsona bakoitzean: NI (neu, nihaur, nerau): HI (heu, hihaur, heror(i)); GU (geu, guhaur, gerok): ZU (zeu, zuhaur, zeror(i)); ZUEK (zeuek, zuhauek, zerok).

	BERA		EURAK	
	SINGULARRA	PLURALA	PLURALA	PLURALA
Absolutua	bera	berak	berak	beraiek
Ergatiboa	berak	berak	berak	beraiek
Datiboa	berari	berari	berai	beraiei
Genitiboa	beraren	beraren	beraren	beraieren
Soziatiboa	berarekin	berarekin	berarekin	beraiekin
Instrumentala	beraz	beraz	beraz	beralez
Destinatiboa	berarentzat, berarendako	berentzat, berendako	berarentzat, berendako	beraierentzat, beraierendako
Motibatiboa	bera(re)ngatik	bera(re)ngatik	bera(re)ngatik	beraie(re)ngatik
Leku-genitiboa	berako, bere baitako	bertako, bere(n) baitako	beretako, beraie(n) baitako	beraieretako, beraier(n) baitako
Inesiboa	berean, bera(re)ngan	bertan	beretan, berengan	beraieretan, beraierengan
Ablatiboa	beretik, bera(re)ngan(d)ik	bertatik, bertarik, berengan(d)ik	beretatik, bertarik, berengan(d)ik	beraieretatik, beraierarik, beraierengan(d)ik
Adlatibo soila	berera, bera(re)ngana(t)	bertara, berengana	beretara, berengana(t)	beraieretara, beraierengana(t)
Hurbiltze-adlatiboa	bererantz, bera(re)nganantz	bertarantz, berenganantz	beretarantz, berenganantz	beraieretarantz, beraierenganantz
Muga-adlatiboa	bereraino, bera(re)ngaino	bertaraino, berenganaino	beretaraino, berenganaino	beraieretaraino, beraierenganaino
Adl.aren gainean eraikia	bererako, bera(re)nganako	bertarako, berenganako	beretarako, berenganako	beraieretarako, beraierenganako

- beraz ondoriozko lokailua da, hortaz, honenbestez eta horrelakoak bezala.
- Hurbilekoa markatzeko, bertan eta bertoko erabil daitezke.
- bertan, bertatik, bertara, bertarantz, bertaraino eta bertarako bizigabezi dagozkie: bera(re)ngan, bera(re)ngan(d)ik, bera(re)ngana(t), bera(re)nganantz, bera(re)ngaino eta bera(re)nganako, berriz, bizidunei.
- Ezkerreko bigarren zutabeen -ta- marka duten formak (bertan, bertara, bertako, ...) bereziki adberbio gisa erabiltzen dira.
- eurak-en plural hurbileko formak (eurok, eurok, euroi, euron, eurokin, ...) erabiltzen dira errespetuzko formetan ere, berori-ren plural gisa.

BAT

BATZUK

MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
bat batek bati baten batekin batentzat bate(n)gatik batez bate(a)n/batengan bateko batera/batengana batetik/batengandik baterantz/batenganantz bateraino/batenganaino baterako/batenganako	bata batak batari bataren batarekin batarentzat batarengatik bataz batean/batengan bateko batera/batengana batetik/batengandik baterantz/batenganantz bateraino/batenganaino baterako/batenganako	batzuk batzuek batzuei batzuen batzuekin batzuentzat batzuegatik batzuez batzuetan/batuzengan batzuetako batzuetara/batuzengana batzuetatik/batuzengandik batzuetarantz/batuzenganantz batzuetaraino/batuzenganaino batzuetarako/batuzenganako

bat hitzak deklinabide mugagabearen formak hartzen ditu. Dena dela, beste hitzaren agerraldi mugatuaren eraginpean dagoenean, ez bestela, deklinabide mugatuko formak hartzen ditu (*bata txikia zen, bestea handia*).

HIRU

LAU

MUGAGABEA	PLURALA	MUGAGABEA	PLURALA
hiru hiruk hiruri hirurik hiruren hirurekin hirurentzat hirurengatik hirurez hirutan/hirurengan hirutako hirutara/hirurengana hirutatik/hirurengandik hirutarantz/hirurenganantz hirutaraino/hirurenganaino hirutarako/hirurenganako	hirurak hirurek hirurei hiruren hirurekin hirurentzat hirurengatik hirurez hiruretan/hirurengan hiruretako hiruretara/hirurengana hiruretatik/hirurengandik hiruretarantz/hirurenganantz hiruretaraino/hirurenganaino hiruretarako/hirurenganako	lau lauk lauri laurik lauren laurekin laurentzat laurengatik laurez lauretan/laurengan lautako lautara/laurengana lautatik/laurengandik lautarantz/laurenganantz lautaraino/laurenganaino lautarako/laurenganako	laurak laurek laurei lauren laurekin laurentzat laurengatik laurez lauretan/laurengan lauretako lauretara/laurengana lauretatik/laurengandik lauretarantz/laurenganantz lauretaraino/laurenganaino lauretarako/laurenganako

hiru eta lau izenak direnean, bokalez bukatzen diren gainerako izenak bezala deklinatzen dira (*hiruak eta lauak oso ongi marrazten ditu, baina gainerako zenbakiak oraindik ez ditu ikasi*); izenordainaren funtzioa dutenean, berriz, laukian ageri bezala deklinatzen dira (*zazpi haur hurbildu ziren: lehenengo hirurek gozoki bana hartu zuten, baina beste laurak gabe gelditu ziren*).

Laukiko formak hiru eta lau zenbakiak bakarrik dagozkie eta ez hamahiru, hamalau, hogeita hiru, hogeita lau eta gainerakoei, hauen pluraletako deklinabidea hamahiruak, hogeita hiruak, hamalauak, hogeita lauak, etab. baitira (*atzoko hirurak etorri ziren, baina beste hamahiruak etxean gelditu ziren*).

HITZ ELKARTUEN IDAZKERA

- Bereiz idatziko dira:
 - aposizioak (*Bidasoa ibaia*),
 - *egin, eman, hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz elkarteak (*lo egin*),
 - *etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
 - *egin berri* modukoak,
 - *mahai gainean* gisako posposizioak,
 - bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak,
 - lehen osagaia *erdal, euskal, giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian,
 - lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean (*biologi azterketa*).
- Marrarekin idatziko dira:
 - *gorri-gorria* moduko bikoiztapen indargarriak,
 - *apurka-apurka* bezalako bikoiztapenak,
 - *seme-alabak, zuri-gorri* modukoak,
 - *barra-barra, plisti-plasta* bezalakoak,
 - *Ezki-Itsaso* moduko lezu-izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: *Lizarra / Estella*).
- Loturik idatziko dira:
 - *jarleku* moduko elkarteak,
 - *aldagaitz* bezalako izatera elkarteak,
 - *odolustu* moduko izen-elkarte arruntak,
 - bigarren osagaia *-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe* edota *-gintza, -za(t)ntza* duten elkarteak,
 - bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde* duten izen-elkarteak,
 - lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *-gain* duten izen-elkarteak,
 - *lauburu* moduko elkarteak.
- Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala:
 - *eguzki lore, eguzki-lore* moduko izen elkartu arruntak,
 - *kale garbitzaille, kale-garbitzaille* modukoak.

(Bi hitzak letra larriz hasten direnean hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).
- Marrarekin edo loturik, nahi den bezala:
 - *sudurluze, sudur-luze* moduko elkarte arruntak.
- Elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daitezke: *biologi azterketa, biologia-azterketa*. Bestelako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura* eta *natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori.

Idazkerari dagokionez, amaierako >a< galtzen den bakoitzean, bereiz idatziko da hitz elkartua eta >a< gordetzen denean, aukeran izango da bereiz idaztea nahiz marraztea: *kultur etxea* nahiz *kultura(-)etxea, biologi azterketa* nahiz *biologia(-)azterketa*.

ADITZ LAGUNTZAILEA

		NOR	NOR-NORI		NOR-NORK				NOR-NORI-NORK							
INDIKATIBOA	ORAINA	naiz haiz da gara zara zarete dira	NA HA DA GA ZA ZA	tzai tzai zai tzai tzai tzai zai	T K/N O GU ZU ZUE E					T K/N O GU ZU ZUE TE	T K/N -					
		IRAGANA	nintzen hintzen zen ginen zinen zineten ziren	NIN HIN ZI GIN ZIN ZIN ZI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	T K/N O GU ZU ZUE E	N N N N N te N	NOR 3. pertsona hura		NOR 1 edo 2. pertsona		NORK NOR NORI	T K/N O GU ZU ZUE TE	N N N N N te N		
BALDINTZAKOAK	BALDINTZA		banintz bahintz balitz bagina bazina bazinete balira	ba ba ba ba ba ba ba	NIN HIN LI GIN ZIN ZIN LI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	T K/N O GU ZU ZUE E	banu bahu balu bagenu bazenu bazenute balute	banitu bahitu balitu baganitu bazenitu bazenituzte balituzte	ba ba () ba ba ba ()	NIND HIND () GIN ZINT ZINT	u u - u u z z	T K/N - GU ZU ZUE TE	ba ba ba ba ba ba	N H L GEN ZU ZEN L	T K/N O GU ZU ZUE E
		ONDORIOA	ORAINA	nintzateke hintzateke litzateke ginateke zinateke zinatekete lirateke	NIN HIN LI GIN ZIN ZIN LI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	T K/N O GU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke	nuke huke luke genuke zenuke zenukete lukete	nituzke hituzke lituzke genituzke zenituzke zenituzkete lituzkete	NIND HIND () GIN ZINT ZINT	u u - u u z z	ke ke - GU ZU ZUE TE	N H L GEN ZEN ZEN L	T K/N O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke
	IRAGANA			nintzatekeen hintzatekeen zatekeen ginatekeen zinatekeen zinateketen ziratekeen	NIN HIN ZI GIN ZIN ZIN ZI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	T K/N O GU ZU ZUE E	ke eN ke eN ke eN ke eN	nukeen hukeen zukeen genukeen zenukeen zenuketen zuketeten	nituzkeen hituzkeen zituzkeen genituzkeen zenituzkeen zenituzketen zituzketen	NIND HIND () GIN ZINT ZINT	u u - u u z z	ke K/N - GU ZU ZUE TE	N N Z GEN ZEN ZEN Z	T K/N O GU ZU ZUE E	ke eN ke eN ke eN ke te N
		AHALERA	ORAINA	naiteke haiteke daiteke gaitezke zaitezke zaitezketek daitezke	NA HA DA GA ZA ZA DA	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke			NA HA De GA ZA ZA D	zake zake zake it it it it	T K/N - GU ZU ZUE TE		NA HA De GA ZA ZA D	T K/N - GU ZU ZUE TE
IRAGANA	nintzekeen hintzekeen zitekeen gintzekeen zintzekeen zintzeketen zitezkeen			NEN HEN ZE GEN ZEN ZEN ZE	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E	ke eN ke eN ke eN ke eN	nezakeen hezakeen zezakeen genezakeen zenezakeen zenezaketen zezaketeten	nitzakeen hitzakeen zitzakeen genitzakeen zenitzakeen zenitzaketeten zitzaketeten	NINT HINT () GIN ZINT ZINT	zake zake - zake zake zake zake	T K/N - GU ZU ZUE TE	N N eN N N N N	N H Z GEN ZEN ZEN Z	T K/N O GU ZU ZUE iE	ke eN ke eN ke eN ke te N
	ALEGIAZKOA		nintze hintze liteke gintzeke zintzeke zintzekete litezke	NEN HEN LE GEN ZEN ZEN LE	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke	nezake hezake lezake genezake zenezake zenezakete lezakete	nitzake hitzake litzake genitzake zenitzake zenitzakete litzakete	NINT HINT () GIN ZINT ZINT	zake zake - zake zake zake	T K/N - GU ZU ZUE TE	N N N N N N N	N H L GEN ZEN ZEN L	T K/N O GU ZU ZUE iE	ke ke ke ke ke ke ke
ORAINA			nadin hadin dadin gaitezen zaitezen zaitezten daitezen	NA HA DA GA ZA ZA DA	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E	N N N N N N N			NA HA De GA ZA ZA D	za za za it it it it	T K/N - GU ZU ZUE TE	N N N N N N N	D i (zki)	T K/N O GU ZU ZUE iE	N N N N N N N
	IRAGANA	nendin hendin zedin gintzezen zintzezen zintzezen zitezzen	NEN HEN ZE GEN ZEN ZEN ZE	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E	N N N N N N N	nezan hezan zezan genezan zenezan zenezaten zezaten	niltzan hitzan ziltzan geniltzan zeniltzan zeniltzaten ziltzaten	NINT HINT () GIN ZINT ZINT	za za - za za za za	T K/N - GU ZU ZUE TE	N N N N N N N	NORK NOR NORI	T K/N O GU ZU ZUE iE	N N N N N te N	te N N N N N te N
AGINTERA		() hadi bedi () zaitz zaitzte bitz	() HA BE () ZA ZA BE	ki ki ki ki ki ki ki	T K/N O GU ZU ZUE E		- ezak/n - - ezazu ezazue -	- itzak/n - - itzazu itazue -	NA Be GA () ZU ZUE TE	za za za it za za	T K/N - GU ZU ZUE TE		NA Be GA () ZU ZUE TE	T K/N O GU ZU ZUE iE	() K/N - GU ZU ZUE iE	N N N N N N N

Pertsona-markak adizkiaren amaieran diralarik, ondoko aldatetak gertatzen dira: T→DA (dut, baina dudala, hindudun); K→A (duk, baina duala, nindun); N→NA (dun, baina dunala, nindun).



ADITZ TRINKOEN PARADIGMAK

Hemen ematen diren formak usuenak dira.

1. ATXIKI

Oraina					Iragana				
NOR				NORI	NOR				NORI
na	txe			ki	t				n
ha	txe			ki	k/n				n
da	txe			ki	o				n
ga	txe	z		ki	gu				n
za	txe	z		ki	zu				n
za	txe	z		ki	zue	te			n
da	txe	z		ki	e				n

adib. *natxekio; zatxexkit; zatxexkiote; zetxekion; gentxexkion.*

2. EDUKI

Oraina					Iragana				
NOR				NORK	NOR				NORK
na	u			ka	t				n
ha	u			ka	k/n				n
da	u			ka	-				n
ga	u	z		ka	gu				n
za	u	z		ka	zu				n
za	u	z		ka	zue	(te)			n
da	u	z		ka	te				n

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Iragana	Baldintza	Ondorioa
neukan	baneuka	neukake
heukan	baheuka	heukake
zeukan	baleuka	leukake
geneukan	bageneuka	geneukake
zeneukan	bazeneuka	zeneukake
zeneukaten	bazeneukate	zeneukakete
zeukaten	baleukate	leukakete
neuzkan	baneuzka	neuzkake
heuzkan	baheuzka	heuzkake
zeuzkan	baleuzka	leuzkake
geneuzkan	bageneuzka	geneuzkake
zeneuzkan	bazeneuzka	zeneuzkake
zeneuzkaten	bazeneuzkate	zeneuzkakete
zeuzkaten	baleuzkate	leuzkakete

adib. *nauka; daukagu; zauzkategu; nindukan; zinduzkagun.*

3. EGIN

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Oraina	Iragan	Baldintza	Ondorioa	Agintera
dagit	negien	banegi	negike	egin/-n
dagik/-n	hegien	bahegi	hegike	begi
dagi	zegien	balegi	legike	
dagigu	genegien	bagenegi	genegike	
dagizu	zenegien	bazenegi	zenegike	egizu
dagizue	zenegiten	bazenegite	zenegikete	egizue
dagite	zegiten	balegite	legikete	begite
dagitzat	negitzan	banegitza	negizke	egitzak/-n
dagitzak/-n	hegitzan	bahegitza	hegizke	begitza
dagitza	zegitzan	balegitza	legizke	
dagitzagu	genegitzan	bagenegitza	genegizke	
dagitzazu	zenegitzan	bazenegitza	zenegizke	egitzazu
dagitzazue	zenegitzaten	bazenegitzate	zenegizkete	egitzazue
dagitzate	zegitzaten	balegitzate	legizkete	begitzate

4. EGON

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
nago	nengoen	banengo	nengoke	nagoen
hago	hengoen	bahengo	hengoke	hago
dago	zegoen	balego	legoke	bego
gaude	geunden	bageunde	geundeke	gauden
zaude	zeunden	bazeunde	zeundeke	zaude
zaudete	zeundeten	bazeundete	zeundekete	zaudete
daude	zeuden	baleude	leudeke	beude

Oraina				
NOR				NORI
na	go		ki	t
ha	go		ki	k/n
da	go		ki	o
ga	go	z	ki	gu
za	go	z	ki	zu
za	go	z	ki	zue te
da	go	z	ki	e

Iragana				
NOR				NORI
nen	go		ki	t n
hen	go		ki	k/n n
ze	go		ki	o n
gen	go	z	ki	gu n
zen	go	z	ki	zu n
zen	go	z	ki	zue te n
ze	go	z	ki	e n

Baldintza (ba-)					Ondorioa (-ke)				
	NOR				NORI				
(ba)	nen	go		ki	t	(ke)			
(ba)	hen	go		ki	k/n	(ke)			
(ba)	le	go		ki	o	(ke)			
(ba)	gen	go	z	ki	gu	(ke)			
(ba)	zen	go	z	ki	zu	(ke)			
(ba)	zen	go	z	ki	zue te	(ke)			
(ba)	le	go	z	ki	e	(ke)			

adib. *dagokio; gagozkizu; zagozkiote; zegokion; balegokio; legokioke.*

5. EKARRI

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Oraina			
NOR			NORK
na	kar		t
ha	kar		k/n
da	kar		-
ga	kar	tza	gu
za	kar	tza	zu
za	kar	zte	zue
da	kar	tza	te

Iragana	Baldintza	Ondorioa
nekarren	banekar	nekarke
hekarren	bahekar	hekarke
zekarren	balekar	lekarke
genekarren	bagenekar	genekarke
zenekarren	bazenekar	zenekarke
zenekarten	bazenekarte	zenekarkete
zekarten	balekarte	lekarkete
nekartzan	banekartzza	nekarzke
hekartzan	bahekartza	hekarzke
zekartzan	balekartza	lekarzke
genekartzan	bazenekartzza	genekarzke
zenekartzan	bazenekartzza	zenekarzke
zenekartzaten	bazenekartzzate	zenekartzkete
zekartzaten	balekartzate	lekarzke

Oraina			Iragana					
NOR	NORI	NORK	NOR				NORI	
	t	t	ne	kar	(z)	ki	t n	
	k/n	k/n	he	kar	(z)	ki	k/n n	
	o	-	ze	kar	(z)	ki	o n	
dakar(z)ki	gu	gu	gen	kar	(z)	ki	gu n	
	zu	zu	zen	kar	(z)	ki	zu n	
	zue	zue	zen	kar	(z)	ki	zue te n	
	e	te	ze	kar	(z)	ki	e te n	

adib. *nakark; gakartzazu; zakartzet; dakarkigu; dakartzizuete; zekarkidan; zekartzidan; nekarkion; nekartzion.*

6. EMAN (nor 3. pertsona)

Agintera

NOR-NORK	NOR (sing.)-NORI (3. perts.)-NORK	NOR (pl.)-NORI (3. perts.)-NORK
demadan	---	---
emak/n	emaiok/n	emaizkiok/n
bema	bemakio	bemazkio
demagun	---	---
emazu	emaiozu	emazkiozu
emazue	emaiozue	emazkiozue
bemate	bemakiote	bemazkiote

7. ENTZUN

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta segidakoan plurala)

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
dantzut	nentzuen	banentzun	nentzuke	dantzudan
dantzuk/n	hentzuen	bahentzu	hentzuke	entzuk/n
dantzu	zentzuen	balentzu	lentzuke	bentzu
dantzugu	genentzuen	bagenentzu	genentzuke	dantzugun
dantzuzu	zenentzuen	bazententzu	zenentzuke	entzuzu
dantzuzue	zenentzuten	bazententzute	zenentzuketete	entzuzue
dantzute	zentzuten	balentzute	lentzuketete	bentzute

dantzukit dantzukik/n dantzuki dantzukigu dantzukizu dantzukizue dantzukite	nentzuzkien hentzuzkien zentzuzkien genentzuzkien zenentzuzkien zenentzuzkiten zentzuzkiten	banentzuzki bahentzuzki balentzuzki bagenentzuzki bazententzuzki bazententzuzkite balentzuzkite	nentzuzke hentzuzke lentzuzke genentzuzke zenentzuzke zenentzuzkete lentzuzkete	dantzukidan entzuzkik/n bentzuzki dantzukigun entzuzkizu entzuzkizue bentzuzkite
---	---	---	---	--

8. ERABILI

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Oraina

NOR			NORK
na	rabil		t
ha	rabil		k/n
da	rabil		-
ga	rabil	tza	gu
za	rabil	tza	zu
za	rabil	zte	zue
da	rabil	tza	te

Iragana

Baldintza

Ondorioa

nerabilen herabilen zerabilen generabilen zenerabilen zenerabilten zerabilten	banerabil baherabil balerabil bagenerabil bazenerabil bazenerabilte balerabilte	nerabilke herabilke lerabilke generabilke zenerabilke zenerabilkete lerabilkete
nerabiltzan herabiltzan zerabiltzan generabiltzan zenerabiltzan zenerabiltzaten zerabiltzaten	banerabiltza baherabiltza balerabiltza bagenerabiltza bazenerabiltza bazenerabiltzate balerabiltzate	nerabilzke herabilzke lerabilzke generabilzke zenerabilzke zenerabilzkete lerabilzkete

Oraina

NOR	NORI	NORK
	t	t
	k/n	k/n
	o	-
darabil(z)ki	gu	gu
	zu	zu
	zue	zue
	e	te

adib. harabilgu; darabilte; zarabiltzagu; zarabiltze; darabilkiegu; darabilziegu.

9. ERAMAN

Oraina

NOR			NORK
na	rama		t
ha	rama		k/n
da	rama		-
ga	rama	tza	gu
za	rama	tza	zu
za	rama	tza	zue
da	rama	tza	te

Iragana

NOR			NORK
nind	erama		t n
hind	erama		k/n n
-	erama		- n
gind	erama	tza	gu n
zind	erama	tza	zu n
zind	erama	zte	zue n
-	erama	te	n

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Iragana

Baldintza

Ondorioa

neraman heraman zeraman generaman zeneraman zeneramaten zeramaten	banerama baherama balerama bagenerama bazenerama bazeneramate baleramate	neramake heramake leramake generamake zeneramake zeneramakete leramakete
neramatzan heramatzan zeramatzan generamatzan zeneramatzan zeneramatzaten zeramatzaten	baneramatza baheramatza baleramatza bageneramatza bazeneramatza bazeneramatzate baleramatzate	neramazke heramazke leramazke generamazke zeneramazke zeneramazkete leramazkete

Oraina

Iragana

NOR	NORI	NORK	NORK			NORI	
	t	t	ne	rama	(z)	ki	n
	k/n	k/n	he	rama	(z)	ki	k/n
	o	-	ze	rama	(z)	ki	o
darama(z)ki	gu	gu	gen	rama	(z)	ki	gu
	zu	zu	zen	rama	(z)	ki	zu
	zue	zue	zen	rama	(z)	ki	zue
	e	te	ze	rama	(z)	ki	e
							te
							n

adib. haramagu; garamatza; ginderamatzan; zaramaztet; daramakit; generamakion; generamazkion.

10.ESAN (*IO/ERRAN)

Oraina	Iragana	Agintera
diot	nioen	derradan
diok/n	hioen	errak/n
dio	zioen	berra
diogu	genioen	derragun
diozu	zenioen	errazu
diozue	zenioten	errazue
diote	zioten	berrate

11.ETORRI

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
nator	nentorren	banentor	nentorke	natorren
hator	hentorren	bahentor	hentorke	hator
dator	zetorren	baletor	letorke	betor
gatoz	gentozen	bagentoz	gentozke	gatozen
zatoz	zentozen	bazentoz	zentozke	zatoz
zatozte	zentozten	bazentozte	zentozkete	zatozte
datoz	zetozen	baletoz	letozke	betoz

Oraina				
NOR				NORI
na	tor		ki	t
ha	tor		ki	k/n
da	tor		ki	o
ga	to	z	ki	gu
za	to	z	ki	zu
za	to	z	ki	zue te
da	to	z	ki	e

Iragana				
NOR				NORI
nen	tor		ki	t
hen	tor		ki	k/n
ze	tor		ki	o
gen	to	z	ki	gu
zen	to	z	ki	zu
zen	to	z	ki	zue te
ze	to	z	ki	e

adib. hatorkit; datorkio; gatozki; nentorkion; gentozkizun.

12.ETZAN

Oraina	Iragana
natza	nentzan
hatza	hentzan
datza	zetzan
gautza	geuntzan
zautza	zeuntzan
zautzate	zeuntzaten
dautza	zeutzan

13.EZAGUTU

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Oraina	Iragana
dazagut	nezaguen
dazaguk/n	hezaguen
dazagu	zezaguen
dazagugu	genezaguen
dazaguzu	zenezaguen
dazaguzue	zenezaguten
dazagute	zezaguten
dazaguzkit	nezaguzkien
dazaguzkik/n	hezaguzkien
dazaguzki	zezaguzkien
dazaguzkigu	genezaguzkien
dazaguzkizu	zenezaguzkien
dazaguzkizue	zenezaguzkiten
dazaguzkite	zezaguzkiten

14.IBILI

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
nabil	nenbilen	banenbil	nenbilke	nabilen
habil	henbilen	bahenbil	henbilke	habil
dabil	zebilen	balebil	lebilke	bebil
gabiltza	genbiltzan	bagenbiltza	genbilzke	gabiltzan
zabiltza	zenbiltzan	bazenbiltza	zenbilzke	zabiltza
zabiltzate	zenbiltzaten	bazenbiltzate	zenbilzketete	zabiltzate
dabiltza	zebiltzan	balebiltza	lebilzke	bebiltza

Oraina

NOR		NORI	
na	bil	ki	t
ha	bil	ki	k/n
da	bil	ki	o
ga	bil	z	ki
za	bil	z	ki
za	bil	z	ki
da	bil	z	ki

Iragana

NOR		NORI	
nen	bil	ki	t
hen	bil	ki	k/n
ze	bil	ki	o
gen	bil	z	ki
zen	bil	z	ki
zen	bil	z	ki
ze	bil	z	ki

adib. *habilkie; gabilzkie; zebilkidan; zenbilzkguten.*

15. IKUSI

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behekoan plurala)

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
dakusat dakusak/n dakusa dakusagu dakusazu dakusazue dakusate	nekusan hekusan zekusan genekusan zenekusan zenekusaten zekusaten	banekusa bahekusa balekusa bagenekusa bazenekusa bazenekusate balekusate	nekuske hekuske lekuske genekuske zenekuske zenekuskete lekuskete	dakusadan ikusak/n bekusa dakusagun ikusazu ikusazue bekusate
dakuskit dakuskik/n dakuski dakuskigu dakuskizu dakuskizue dakuskite	nekuskien hekuskien zekuskien genekuskien zenekuskien zenekuskiten zekuskiten	banekuski bahekuski balekuski bagenekuski bazenekuski bazenekuskite balekuskite	nekusazke hekusazke lekusazke genekusazke zenekusazke zenekusazkete lekusazkete	dakuskidan ikuski/n bekuski dakuskigun ikuski/n ikuski/n ikuski/n ikuski/n

16. IRAKIN

Oraina	Iragana
dirakit dirakik/n diraki dirakigu dirakizu dirakizue dirakite	nirakien hirakien zirakien genirakien zenirakien zenirakiten zirakiten

17. IRAUN

Oraina	Iragana
diraut dirauk/n dirau diraugu dirauzu dirauzue diraute	nirauen hirauen zirauen genirauen zenirauen zenirauten zirauten

18. IRITZI

Oraina	Iragana
hari derizot* hari derizok/n hari deritzo hari deritzogu hari deritzozu hari deritzozue hari deritzote	neritzon heritzon zeritzon generitzon zeneritzon zeneritzoten zeritzoten
haiei deritzet* haiei deritzek/n haiei deritze haiei deritzegu haiei deritzezu haiei deritzezue haiei deritzete	neritzen heritzen zeritzen generitzen zeneritzen zeneritzeten zeritzeten

19. IRUDI

Oraina	Iragana
dirudit dirudik/n dirudi dirudigu dirudizu dirudizue dirudite	nirudien hirudien zirudien genirudien zenirudien zeniruditen ziruditen

Beste forma batzuk: *niri derizt; niri deriztazu; guri derizku; guri derizkuzu; zuri deritzu; zuri deritzugu; zuei deritzue eta zuei deritzuegu.*

* Forma biak **deritzo-** eta **deritza-** onartzen dira. Datibo pluralen **deritze-** eta **deritze-** onartzen dira.

20. JAKIN

nor 3. pertsona (lehen laukian singularra eta behetxoan plurala)

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa
dakit dakik/n daki dakigu dakizu dakite	nekie hekie zekie genekie zenekien zekiten	baneki baheki baleki bageniki bazenekite balekite	nekike hekike lekike genekike zenekikete lekikete
dakizkit dakizkik/n dakizki dakizkigu dakizkizu dakizkizue dakizkite	nekizkien hekizkien zekizkien genekizkien zenekizkien zenekizkiten zekizkiten	banekizki bahekizki balekizki bagenekizki bazenekizki bazenekizkite balekizkite	nekizke hekizke lekizke genekizke zenekizke zenekizkete lekizkete

21. JARDUN

Oraina	Iragana
dihardut diharduk/n dihardu dihardugu diharduzu diharduzue dihardute	niharduen hiharduen ziharduen geniharduen zeniharduen zeniharduten ziharduten

22. JARIO/ERION

Oraina	Iragana
niri hiri hari guri zuri zeuei haiei	darit darik/n dario darigu darizu darizue darie
	zeridan zeri(n)an zerion zerigun zerizun zerizuen zerien

23. JARRAIKI

Oraina		NORI	
NOR		NORI	
na	rrai	t	
ha	rrai	k/n	
da	rrai	o	
ga	rrai	zki	gu
za	rrai	zki	zu
za	rrai	zki	zue te
da	rrai	zki	e

Oraina		NORI	
NOR		NORI	
ne	rrai	t	n
he	rrai	k/n	n
ze	rrai	o	n
gene	rrai	zki	gu
zene	rrai	zki	zu
zene	rrai	zki	zue te
ze	rrai	zki	e

adib. *narraio; darraio; zarraizkio; zerraion; generraizkion.*

24. JOAN

Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Agintera
noa hoa doa goaz zoaz zoazte doaz	nindoan hindoan zihooan gindoazen zindoazen zindoazten zihooazen	banindoa bahindoa balihooa bagindoaz bazindooaz bazindooazte balihooaz	nindoake hindoake lihooake gindoazke zindoazke zindoazkete lihooazke	noan hoa bihooa goazen zoaz zoazte bihooaz

Oraina		NORI	
NOR		NORI	
n	oa	ki	t
h	oa	ki	k/n
d(ih)	oa	ki	o
g	oa	z	ki
z	oa	z	ki
z	oa	z	ki
d(ih)	oa	z	ki

Oraina		NORI	
NOR		NORI	
nind	oa	ki	t
hind	oa	ki	k/n
zih	oa	ki	o
gind	oa	z	ki
zind	oa	z	ki
zind	oa	z	ki
zih	oa	z	ki

adib. *doakio edo dihoakio; noakio; goazkio; hindoakion; zindoazkiguten.*

H I T A N O A

- Hiztunak aurrean duen solaskidea **hika** (eta ez **zuka**) tratatzen duenean erabiltzen dira hikako alokutiboak. Hikari dagozkion markak (-n solaskidea emakumezkoa denean eta -k gizonezkoa denean, funtsean) adizkietan ageri dira. Hikako tratamendua lagunartean, famili giroan eta konfiantzako giroetan erabili ohi da.
- Hikako tratamendua hautatuz gero, nahitaez hikako formak erabiltzera behartuta dago hiztuna. Adibidez:
*Hi goiz etorri haiz, baina hire laguna berandu iritsi **dun/duk** (eta ez ***da**)*
- Nahiz eta perpaus nagusian hikako erregistroa aukeratu, mendeko perpausaren erregistro neutroa erabili behar da (horregatik, subjuntiboko adizkiek ez dute forma alokutiborik). Adibidez:
*Alkatea ere etortzekoa **dela** (eta ez ***dunala**/***dua**) entzun **dinat/diat***
- Hikako adizkiak adierazpen-perpauetan baino ez dira erabiltzen; galderazko eta harridurazko perpausok ez dute adizki alokutiborik hartzen. Adibidez:
*Non erosi **dute** (eta ez ***diten**/***ditek**) liburu hori?*
*Deabruak eramango ahal **du!** (eta ez ***din**/***dik**)*
- Oharra: ondoren ez dira paradigma osoak ematen. Adizkirik erabilienak baino ez daude.

ADITZ LAGUNTZAILEAK

NOR (izan)

Oraina	
naiz	nauk/naun
da	duk/dun
gara	gaituk/gaitun
dira	dituk/ditun
Iragana	
nintzen	ninduan/nindunan
zen	zuan/zunan
ginen	gintuan/gintunan
ziren	zituan/zitunan
Alegiazkoa [+ke]	
nintzateke	nindukek/ninduken
litzateke	luek/luken
ginateke	gintuzkek/gintuzken
lirateke	lituzkek/lituzken
Iragana [+ke]	
nintzatekeen	nindukean/nindukenan
zatekeen	zukean/zukenan
ginatekeen	gintuzkean/gintuzkenan
ziratekeen	zituzkean/zituzkenan

NOR (*edin)

Oraina [+ke]	
naiteke	naitekek/naiteken
daiteke	daitekek/daiteken
gaitzek	gaitzekek/gaitzek
daitezke	daitezkek/daitezken
Iragana [+ke]	
nintekeen	nintek
zitekeen	zitek
gintezkeen	gintezkek/gintezken
zitezkeen	zitezkek/zitezken
Alegiazkoa [+ke]	
ninteke	nintek/ninteken
liteke	litekek/liteken
gintezke	gintezkek/gintezken
litezke	litezkek/litezken

NOR-NORI (izan)

Oraina	
zait	zaidak/zaidan
zaio	zaio/zaion
zaigu	zaiguk/zaigun
zaie	zaiek/zaien
Iragana	
